HERNANIKO UDALAREN LOKALAK ERABILI AHAL IZATEKO KONTRATUA

Hernanin, 2022ko martxoaren 16ean, elkartu dira, alde batetik, Xabier Lertxundi, Hernaniko Udalaren (IFZ: P2004300F) izenean eta, bestetik, Concha Clavero Molina, 15239779W zenbakiko NAN duena, ERROAK Gizarteratzeko Elkartearen (IFZ: G20181319) legezko ordezkari gisa. Parte hartu dute lokalak erabili ahal izateko akordio edo kontratu hau egiteko legezko ahalmen nahikoa elkarri onartzen diotela. Eta hau

ADIERAZTEN DUTE:

Hernaniko Udala dela Hernaniko Latsunbe auzoko 44 zenbakian dagoen prestakuntza-zentroaren jabea.

ERROAK Gizarteratzeko Elkartea irabazteko asmorik gabeko erakundea dela eta, elkartearen helburuen artean prestakuntza-ekintzak egitea dagoela, gizarte-egoera ahuleko pertsonei gizarteratzen eta lan-munduan txertatzen laguntzeko.

Hernaniko Udala Lanbidek prestakuntza-zentro gisa egiaztatu eta baimendutako entitatea dela. Besteak beste, honako hauek ditu homologatuak: Sukaldaritzako HOTR-0408-0408 Profesionaltasun Ziurtagiria (1376/2008 Errege Dekretua) eta Gozogintzako HOTR-0509 Profesionaltasun Ziurtagiria (685/2011 Errege Dekretua).
ERROAK Gizarteratzeko Elkartea Lanbidek prestakuntza-zentro gisa egiaztatu eta baimendutako erakundea dela. Hauxe bere kodea: 000114

Bi erakundeen artean **AKORDIO** hau sinatu dute ERROAK Gizarteratzeko Elkarteak goian aipatutako lokalak erabiltzeko aukera izan dezan. Hona hemen akordioaren

BALDINTZAK:

1.- ERROAK Gizarteratzeko Elkarteak Hernaniko Udalaren lokalak erabiliko ditu “Lanbideen ezagutza” izeneko prestakuntza jarduera garatzeko. Beterri Buruntza eskualdeko pertsonei gizarte eta laneratzen ibilbideak ahalbidetzea izango duena helburu. El inicio del curso de formación tendrá lugar el 30 de marzo de 2022 y finalizará el 23 de junio de 2022.

2.- Hernaniko Udalak akordio hau izenpetzen den unetik bertatik lagako dizkio instalazioak elkarteari, eta erabilera prestakuntza jardueraren azken egunera arte mugatuko da.

3.- Akordio honen gai diren instalazioak goian aipatutako helbidean daude kokatuak, prestakuntza-zentroan. Akordio honen bidez elkarteak azpiegiturak eta tresneria erabil ditzake, bai eta prestakuntza-zentroko komunak eta aldagelak ere.

4.- ERROAK Gizarteratzeko Elkarteak prestakuntza-lana egiteko beharrezkoa den material suntsikor eta didaktikoa jarriko du irakaslearen eskura. Ez ditu prestakuntza-zentroaren kontsumo orokorreko gastuak ordainduko (argindarra, garbiketa, berokuntza edota bestelako mantentze lanetako gastuak).

5.- ERROAK Gizarteratzeko Elkartea izango da lagatzen zaizkion instalazio, tresneria eta materialen erabilera egokiaren erantzulea, eta prestakuntza-jardueraren ondorioz kaltetzen badira, elkartea arduratuko da haiek konpontzeaz.

6.- ERROAK Gizarteratzeko Elkarteak honako ordutegi honen barruan erabili ahal izango ditu akordio honen gai diren instalazioak, tresneria eta materialak: 8:00etatik 18:00etara, astelehenetik ostiralera. Hernaniko Udalak bermatzen du ERROAK Gizarteratzeko Elkarteak erabateko eta benetako disponibilitatea izango duela instalazioak ordutegi horren barruan erabiltzeko, akordioa indarrean dagoen bitartean.

7.- Ez da baldintza ekonomikorik jartzen mintzagai dugun prestakuntza-zentroa erabili ahal izateko.

Izpta.: Xabier Lertxundi. Hernaniko Udaleko ordezkaria

Izpta.: Concha Clavero Molina. ERROAK Gizarteratze Elkartearen zuzendaria.